# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 3375

*EBAZPENA, 2013ko uztailaren 10ekoa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, 2013ko ekitaldiari dagokionez merkataritza-banaketaren dinamizatzaileen prestakuntzarako bekak emateko deialdi publikoa egiteko dena.*

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko ekainaren 15eko Aginduaren bitartez, merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko laguntzen programa arautzen da (2011ko ekainaren 28ko EHAA).

Aipatutako Aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2013ko ekitaldirako diru-laguntzak emateko deialdia egin behar da, horretarako beharrezkoak diren arauak aginduz.

Horrenbestez, aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

Merkataritza- Banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko programa arautzen duen Aginduan aurreikusten diren diru-laguntzetarako deialdia egitea da Ebazpen honen helburua, 2013. ekitaldiari dagokionez.

Helburu hori betetzeko 450.000 euro bideratuko dira, 15.000 euroko dirulaguntzetan banatuta. Diru-kopuru hau bekadunari dagozkion betebehar guztiak ordaintzeko erabiliko da, Gizarte Segurantzari bekadunak ordaindu beharreko kuota barne. Aipatutako zenbatekoa 2013. urterako EAEren aurrekontu luzatuarekin finantzatuko da, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bidez, eta Jaurlaritzari legozkiokeen Gizarte Segurantzaren zergak ere bere gain hartu beharko ditu.

Gehienez ere, 2013ko ekitaldian hogeita hamar (30) laguntza emango dira, eta hamabi hilabeteko iraupena izango dute.

Bigarrena.– Betekizunak, eta eskaerak egiteko tokia eta epea.

1.– Merkataritza-Banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko programa arautzen duen Aginduko diru-laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileek agindu horren 3. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

2.– Eskabidea egiteko eredua Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun lurralde-ordezkaritzetan jaso daiteke, eta interneteko helbide honetan ere bai: www.euskadi.net/comercio.

3.– Eskabide-orria eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Merkataritza Zuzendaritzari zuzenduta bidali beharko dituzte eskatzaileek, eta Sailaren lurralde ordezkaritzetan aurkeztu, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

4.– Deialdi honen bidez deitzen diren laguntzak jasotzeko eskaerak egiteko epea 2013ko abuztuaren 14tik irailaren 13ra artekoa izango da.

Hirugarrena.– Hautatze-irizpideak eta prozedura

Merkataritza-Banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko ekainaren 15eko Aginduaren 9. artikuluan (2011ko ekainaren 28ko EHAA) ezarritakoa jarraituko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango du eragina.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari. Horretarako hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 10a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
ITZIAR EPALZA URQUIAGA.